



ARTZINIEGA KO UDALA

AKTA

Saioa: Ohiko osoko bilkura
Eguna: 2016ko urtarrilak 14
Ordua: 19:05 – 19:40
Lekua: Udaletxeko Bilkura Gelan

Bertaratuak:

Iñigo Gomez Unzueta
Inmaculada Vivanco Retes
Maria Lorente Burgos
Jose Luis de Valle Duque
Joseba Mirena Vivanco Retes
Arkaitz San Jose Martinez
Alazne Lafragua Ureta
Unai Gotxi Kastrexana

Ez dira bertaratu: Joseba Elejalde Ribacoba.

M^a Ascensión Hormazabal Meabe, Idazkari eta Kontu-hartzailea.

Saioa hasita eta lehendakariak publikotzat jo ostean, 19:05etan, gai-zerrendako puntuak ezagutarazi dira, eta akordio hauek hartu dira:

1. 2015eko azaroaren 5ean eta 23an egindako saioetako aktak zirriborroan onartzea, hala badagokio.

Oharrik egin ez denez, 2015eko azaroaren 6an egindako saioko akta bozkatu da:

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik(3); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (4).

Onartuta geratu da.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Jose Luis de Valle Duque

Onartuta geratu da.

Oharrik egin ez denez, 2015eko azaroaren 23an egindako saioko akta bozkatu da:

Kontran:

Batere ez

Abstentzioa:

Alazne Lafragua Ureta.

Aldeko botoak:



Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderditik(4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EHBildu alderditik (3).

Onartuta geratu da.

2. 2016ko ekitaldiko Udal Aurrekontua onartzea.

AKORDIO-PROIEKTUA

Ogasun Batzorde Informatzaileek 2015eko abenduaren 2an eta 2016ko urtarrilaren 7an egindako saioetan, 2016. urterako Aurrekontuko espedienteaz aztertu ostean, Udalbatzari akordio hau har dezala proposatu diete:

1.- Udal honek 2016. ekitaldirako taxutu duen Aurrekontu Orokorra hasiera batean onartzea. Aurrekontuaren zenbatekoa MILIOI BAT ZAZPIEHUN ETA HOGEITA HAMAR MILA ETA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEITA HAMAIIKA ZENTIMOKOA (1.730.471,91 €) da, Sarrerren Egoeran nahiz Gastuen Egoeran. Honatx aurrekontuaren laburpena Kapituluak:

1. GASTUEN EGOERA

Kapitulua	Zenbatekoa
I Pertsonal-gastuak	727.227,82
II Ondasun Arruntan Erosketa eta Zerbitzuak	568.789,45
III Finantza-gastuak	0,00
IV Transferentzia Arruntak	304.134,45
V Kreditu Orokorra eta bestelako ustekabeak	18.415,05
VI Inbertsio Errealak	105.905,14
VIII Finantza-aktiboak	6.000,00
IX Finantza-pasiboak	0,00
Gastuen egoera guztira	1.730.471,91

2. SARREREN EGOERA

Kapitulua	Zenbatekoa
I Zuzeneko Zergak	450.600,00
II Zeharkako Zergak	31.230,98
III Tasak eta bestelako diru-sarrerak	256.175,35
IV Transferentzia Arruntak	964.859,05
V Ondare-sarrerak	21.606,53
VI Inbertsio Errealen Besterentzeak	0,00
VII Kapitalaren Transferentziak	0,00
VIII Finantza-aktiboak	6.000,00
Sarrerren egoera guztira	1.730.471,91



- 2.- Aurrekontuaren espedientean agertzen den Aurrekontua Exekutatzeko Udal Araua onartzea.
- 3.- Erakunde honen lanpostuen zerrenda onartzea, aipatutako espedientean agertzen dena.
- 4.- Espediente hori jendaurrera eramatea erreklamazioak egin ahal izateko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako forma eta epeak betez.
- 5.- Erreklamaziorik ez balego, akordio hau behin betikotzat hartzea.
- 6.- Erreklamazioak jarriko balira, beste akordio bat hartzea hilabeteko epean.
- 7.- Behin betiko akordioa arauz ezarritako forma eta epeak betez argitaratzea.
- 8.- Behin betiko akordioarekin batera, Erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera.
- 9.- Aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira”.

Alkate jaunak hitza hartu eta zera adierazi du: Aurrekontua orekatua dago sarrera eta gastuei dagokienez eta bere zenbatekoa 1.730.471,91 eurokoa da. 105.905,14 euroko inbertsioak aurreikusten dira, beno hori nagusietako bat da, ez dut proiektua osorik irakurriko, izan ere, hortik aurrera irakurriko dut, beraz, aurrekontu orokorra, 1.730.471,91 eurokoa, hasiera batean onartzea; aurrekontuaren espedientean agertzen den aurrekontu-aldaketari buruzko araua onartzea; erakunde honen lanpostuen zerrenda onartzea, aipatu espedientean agertzen dena; espediente hori jendaurrera eramatea erreklamazioak egin ahal izateko 3/2004 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritako forma eta epeak betez; erreklamaziorik ez balego, akordio hau behin betikotzat hartzea; erreklamazioak jarriko balira, beste akordio bat hartzea hilabeteko epean. Behin betiko akordioa arauz ezarritako forma eta epeak betez argitaratzea; erakunde honen lanpostuen zerrendari buruzko behin betiko akordioa argitaratzea; eta, aldi berean, espedientearen kopia bat igortzea Arabako Foru Aldundira. Horixe da akordio-proiektua, eta zerbait esan nahiko bazenute...

Arkaitz San Jose jaunak erantzun du: Bai, bozkatu aurretik, bada, nik nire taldearen izenean, emango dugun botoa arrazoitu nahiko nuke.

Jarraian, idatzi hau irakurri du:

"Gobernu-taldeak aurrekontu-proiektu bat aurkeztu digu eta guk ezin dugu proiektu horrekin bat egin, izan ere, ez du inolako zerikusirik EH Bildu alderdiak Artziniegan dituen helburu eta ideialekin.

Funtsean, aurrekontu-proiektu honek aurreko legealditan garatu den kudeaketarekin jarraitzen duen bide bat erakusten du. Kudeaketa-eredu hori aldatzea proposatu genuen guk joan den maiatzean hauteskundeetara aurkeztu ginenean. Horretarako, Artziniegako biztanle askok bere babesa eman ziguten, izan ere, guk ez dugu ahantzi horixe izan zela udal hauteskundeetan lehen indar izatera eramán gintuen arrazoia, eta ez beste edozein.

Izan ere, esan dudanez, aurrekontu-proiektu honek ez du ezer berririk proposatzen. Partidaren bat aldatu egiten da, operatibitate arrazoiak direla medio gehienbat, baina funtsean guztiak berdín jarraitzen du.

Bilkura batean adierazi zigutenez, aurrekontu hau zabalik zegoen aldaketen eta biztanleek egindako proposaménean aurrean, baina azken emaitza ikusita deus gutxi aldatu da gobernu-



taldeak hasiera batean zuen ideiarekin alderatuta. Izan ere, gobernu-taldeak partizipazioa eta informazioa nahastu egiten ditu, eta horrela goaz. Bilkura bat deitu zen udal aurrekontuaren inguruko azalpenak emateko. Alkateak zenbaki eta partida mordo bat, sarrera eta gastu anitz eman zizkigun, datu faltarik ez zegoen. Baina, modu horretan inor gutxi animatuko da proposamenak aurkeztera eta, noski, azkenean ekarpen bakarra ere ez.

Izan ere, horixe da partaidetza ulertzeko duzuen modua eta, jakina, gero aurrekontuari buruzko eztabaidan berdintasunari, turismoari, erdi aroko azokari, euskarari edo diru-laguntzei buruz hitz egin nahi duen edonork parte hartzeko espazioak sortu behar direla eskatzen dizuegunean ez gaituzue ulertzen. Horregatik galdetzen dizue "Zein da horren helburua?". Niri galdera zuei itzultzea bururatzen zait. Zein zen boto gehien jaso zituen zerrendari gobernatzen ez uztearen helburua? Guztiak berdin jarraitzeko? Beno, aukera bat da, baina zinez aukera tristea.

Gai horiekin lotutako udal kudeaketa hobetzeko bideak irekitzea proposatzen dugu, gai horien inguruko etorkizunaz gogoeta egiteko, ez zaizue aski iruditzen? Auzotar guztiak inplikatu behar dira gai horietan eta, horregatik, garrantzitsua da haien iritzia jasotzea. Baina modu irekian, banan-banan galdetuz joatea agian erosoagoa izango baita, baina ez da oso jokabide gardena. Baina, dena den, ez dakit zerk harritzen gaituen, Lehendakariak berak aurreko batean argi esan baitzuen "Gizarte-mugimenduek alderdi politikoak konpromisoan ipintzea kezagarria iruditzen zait".

Ez kezkatu. Erakundeak jendaurrera irekitzea onuragarria da. Auzotarrek modu eraikitzaile batean egingo dituzte ekarpenak. Egia da Gaztetxokoaren ekimenak ez dituela esperotako emaitzak eman, baina hori prozesuarekin zer lortu nahi zen, zein helburu zeuden, hasieratik oso ongi finkatu ez delako gertatu da eta, noski, gainezka egin dizue, baina uste dut ohartu zaretela monitore bat jartzea ez zela tontakeria, jendeak arrazoi zuela alegia.

Edozein kasutan, horiek ez dira izan gure proposamen bakarrak, baina bai lehenetsi ditugunak, eta bai bitxia, merkeenak. Beste zenbait proposamen ere egin ditugu, horietako zenbait onartu egin dituzue, denbora libreko monitorearen ikastarorako diru gehiago bideratzearena edo hondartzara egiteko bidaietarako partida murriztearena kasu, baina garrantzitsuenetako batzuk ez dituzue onartu, horien artean Alkatearen soldata murriztu eta diru horrekin kulturarekin eta gazteekin lotutako jardueretarako gastuen partida areagotzearena.

Horregatik guztiagatik, Artziniega izan behar duenaren inguruan duzuen ideiarekin bat egiten ez dugulako, ezin dugu babestu aurkezten diguzuen aurrekontu hau".

Alkate jaunak galdetu du, beste ezer? Aipatu guk prozesua burutu dugula, ireki dugula, web-orrialdean ikusgai izan da partida bakoitza. Jakina agian ez duzue gustuko aurrekontuari buruzko azalpenak emateko modua, gai trinkoa da oso, trinkoa oso, baina ez da izango saiatu ez garelako. Ez genuen arrakastarik izan, ez baitzen jende asko etorri aurkezpenera, baina horri ekingo diogu. Gauzak egingo ditugu eta hanka sartzen badugu, bada izan dadila hanka sartu dugulako, baina ez saiatu ez garelako. Eta horretan jarraituko dugu. Zuek ere izan duzue zuen prozesua, zuen proposamenak aurkezteko aukera izan duzue, eta horietako zenbait kontuan hartu dira. Egindako kritika ikusita, nire ustez proposamenak sakonagoak izan behar ziren egin dituzuenak baino, baina horiek dira aurkeztu dituzuenak. Bestalde, talde irekiak eta partaidetza-foruak sortzeari buruz, partaidetzak ez digu beldurrik ematen, baina partaidetza ez dugu nahi parte hartzeko soilik, helburuak lortzeko baizik, eta emaitzak lortzeko. Horixe da egiten ari garena.

Eta ordainsariari dagokionez gauza bakarra esan nahi dut, bada, legezko ordainsaria dela, Arabako Foru Arauak udaletxeko ordainsariari buruz ezartzen dituen maximoetatik behera dago eta, adierazi nahi dut, Udalbatzaren akordioaren arabera 45.000 euroko ordainsaria finkatu zela gehi hirurtekoak, eta nire alderdiko kideek uko egin diete dietei, eta nik ere antzinasunagatik



dagokidan zatiari muzin egin diot. Horrenbestez, argi utzi nahi dut aurreko legealdiekin alderatuta Alkatearen ordainsaria murriztu egin dela. Hori argi utzi nahi dut.

Arkaitz San Jose jaunak hartu du hitza eta zera adierazi du: Ez dut eztabaida gehiegi luzatzerik nahi, baina partaidetzari dagokionez egin den saiakera eskertu edo balioetsi egiten dugun arren, uste dut jendea espazioetara eta mekanismoetara sartzeko logikarekin eta administrazio-lengoiarekin jarraitzen dela, eta horrela, dagoeneko hor dauden espazioek erakarpen urria edo ezdeusa izango dute. Hain zuzen, kontrakoa da egin behar dena, aurrekontua oso konplikatu dela diozu...

Alkate jaunak hartu du hitza: ez, nik ez dut esan konplikatu denik, trinkoa dela baizik.

Arkaitz San Jose jaunak jarraitu du: ... ongi, aurrekontua egiten duen teknikariaren edo pertsonaren ikuspegitik interpretatzen dugulako, baina, azken finean, oso ekintza eta jarduera sinpletan gauzatzen da, hots, jendeak gaitasun sobera duela bere ustez dirua zertan xahutu behar den adierazteko. Egiaz, zuk esaten badiozu zein partidatik zein partidara pasa behar den, adieraziz partida jakin honetan % x-eko igoera edo % x-eko jaitsiera egon dela, bada, jakina, orduan trinko samar bilakatzen da. Eta ez naiz esaten ari aurrekontu parte-hartzaile batzuetarantz bideratu behar garenik edo halakoak finkatu behar direnik, esan nahi dudak bakarra da, nahi bada, badela egiteko beste modu atseginago eta erosoago bat. Eta hori jendea edo-ra sar dadin ahalegina egiteko moduan eskemak aldatuz egiten da, azken finean, jendearen ekarpenekin hornitzen gara.

Maria Llorente andereñoak hartu du hitza: Ñabardura bat egin nahi nuke, batzordean helburuei buruzko galdera nik egin nuen, gehienbat, beti proposamen asko dagoelako, eta uste dut ez delako soberako kontua proposamen horiek zein helburu edo xederekin egiten dituzuen azaltzea, behin eta berriro proposamenak egiten dituzue, baina uste dut garrantzitsua dela proposamen horien zergatia ulertzea. Aurrekontuen batzorde bat egiteari buruz hitz egiten aritu ginen, eta berdintasun-forua, euskararena eta erdi aroko azokarena egiteko proposamenak irten ziren, eta nik zergatik galdetu nuen, finean proposatu eta gero gainerakoek egin dezatela, modu horretan, mila proposamen antola ditzaket, baina zein helburu eta xederekin proposatzen den ere argitu beharko da.

Alkate jaunak hartu du hitza: Bada, bai, eta trinkoa bilakatu dugula diot eta, badirudi jasangaitza ere egin dugula, bada, partidak ororen eskuragarri daude aurkeztu zirenetik, eta partiden izendapenak, noski, baten bat konplexua, baina "udal igerilekuetako ura, museo etnografikoko berogailua, argiteria publikoa, museo etnografikoko igogailuko telefonoa, negu-plana, izurrite-kontrola..." nahikoa argiak direla uste dut.

Arkaitz San Jose jaunak hartu du hitza eta zera erantzun du: Ados eta nik, herritar edo auzotar modura, zein irizpide daukat esateko "uretan 6.000 ez, baizik eta 3.000". Zein irizpide daukat? Hau da, niri partida guztiak dagokion aurrekontuarekin agertzen bazaizkit zein irizpide daukat, hots, ni aurrekontua ulertzen saiatu naiz eta herritarrek ez duten informazioa eskura dezaket eta, adibide batera, joan den urtean zertan gastatu den ikusten joan behar izan dut eta zenbat xahutu den urte osoa izan gabe, eta buruhausteak izan ditut, hau da, informazio hori izan dudanez estimazioa egin ahal izan dut eta partidaren bat murrizteko ekarpenen bat egin dugu, baina informazio hori ez duen pertsonak, bada, beno ez dio axola, uste dut nahikoa erraza dela planteatzen ari naizena ulertzea. Eta helburuei dagokienez, bada, uste dut nahikoa argi dagoela erdi aroko azokari, euskarari edota turismoari buruz gogoeta bat egitea planteatzen badugu, egin daitekeen guztia ez dela egiten eta hobetu egin daitekeela uste dugulako izango dela. Helburuak zehaztu daitezke, asko egin daitezke, hots,

Maria Llorente andereñoak ñabartu du: Nik helburu eta xede baten inguruan egiten dut galde, izan ere, aurrekontuen batzorde bati buruz ari ginen hizketan eta zuen proposamenean batzordeen edota foruen gaia zergatik ateratzen zen galdetu nuen, besterik ez.

Arkaitz San Jose jaunak erantzun du: Jakina, izan ere ...

Maria Llorente andereñoak berriro hartu du hitza: Helburuak hitza manipulatzeko. Nik hau zein helbururekin proposatzen den galdetu nuen, galdetu besterik ez, eta zuek zuei komeni zaizuen ikuspuntua eman nahi izan diozue.



Arkaitz San Jose jaunak jarraitu du: Bada, planteamendua egin genuenean jarritako ikuspuntua eman diogu, bestela ez genuke planteatuko, hau da, zu jendearekin lanean hasten bazara jendeak jarduerak proposatuko dizkizu eta, azkenean ...

Maria Llorente andereñoak: Bada hori batzordean azaltzea espero nuen.

Arkaitz San Jose jaunak erantzun du: Ados bada, ados.

Alkate jaunak hartu du hitza: Besterik ez badago, bozketa egingo dugu.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioak:

Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderdiko kideak (4).

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque, eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4).

Onartuta geratu da.

3. **Garoñako Zentrala berriro irekitzea ekiditeko mozioa**

Alkate jaunak Mozioa irakurri du:

MOZIOA

1.- Artziniegako Udalak Garoñako zentral nuklearra behin betikoz, baldintzarik gabe eta berehala ixteko eta Garoñako zentral nuklearra eraisteko lanak berehala abiarazteko eskatzen die Espainiako Gobernuari, Nuclenorri, Iberdrolari eta Endesari. Hori guztiori 2013ko urtarrilaren 21ean Arabako Batzar Nagusietan onartutako Instituzioen arteko Batzordearen ikuskapena eta partaidetza aktiboa ziurtatuz.

2.- Artziniegako Udalak Eusko Jaurjaritzari dei egiten dio Garoñako zentral nuklearrean material nuklearra gordetzeko biltegi bat aldi baterako instalatzea baimentzen duen ingurumen-inpaktuaren deklarazioaren aurka errekurtsoa jar dezan.

3.- Artziniegako Udalak salatu egiten du Espainiako gobernuak euskal erakundeei informazioa ez emateko jokabidea, izan ere, ez dute horri buruzko informazio edo kontsultarik jaso.

4.- Artziniegako Udalak dei egiten dio Espainiako Gobernuari, euskal erakundeek eta, bereziki, Arabako erakundeek behin eta berriz Santa Maria Garoña zentralaren balio-bizitzaren jarraipenaren aurka egindako adierazpenekin koherentzian, instalazio horiek berriro irekitzeko beste lizentzia bat onar ez dezan.

5.- Artziniegako Udalak deialdia luzatzen die herritarrei Santa Maria Garoña Zentral Nuklearra berehala itxi eta eraisteko eskatzera bideratutako deialdi guztietan parte har dezaten.

6.- Artziniegako Udalaren ustez, Garoña itxi dadin ezinbestekoa da:

Arabako herrietako eta Burgos inguruko herritarrak elkar hartuta mugitzea, horrela, elkarrekin eta erakundeen babesarekin, Garoña ixteko eta bertan edozein jarduera ukatzeko ahotsa Estatu osora hedatzeko eta, azkenik, gizartean beharrezkoa den gehiengoa lortzeko, modu horretan, Santa Maria Garoña zentral nuklearra behin betikoz itxi dadin.

7.- Mozio hau Arabako Batzar Nagusiei, Arabako Foru Aldundiari, Legebiltzarrari, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuari eta Espainiako Estatuko Gobernuari igorriko zaie, eta baita Endesa, Iberdrola eta Nuclenor enpresei ere.

8.- Artziniegako herritarrei mozioaren berri emango zaie, Artziniegako Udalak erabili ohi dituen bideetatik.

Alkate jaunak adierazi du ezer esateko ez badago, bozkatu egingo dela.



Inmaculada Vivanco andreak galdetu du, gaztelaniazko testuan, 4. puntuan, vía jartzen duen lekuan vida jarri behar ote duen. (Zuzendu egin da).
Alkate jaunak baietz erantzun dio, vida útil agertu behar dela testuan.

Kontran:

Batere ez

Abstentzioak:

Aldeko botoak:

Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Arkaitz San Jose Martinez, Unai Gotxi Kastrexana eta Alazne Lafragua Ureta, EH Bildu alderdiko kideak (4).

Onartuta geratu da.

4. Alkatetza-ebazpenen berri ematea

Alkate jaunak, idazkariak lagunduta, 2015. urteko 144-189 bitarteko Dekretuak eta 2016. urteko 1-3 bitarteko Dekretuak direla jakinarazi du.

Bertaratu diren korporazioko kideek jakintzat eman dute: Iñigo Gomez Unzueta, Inmaculada Vivanco Retes, Jose Luis de Valle Duque eta Maria Lorente Burgos EAJ alderdiko kideak (4); Joseba Vivanco Retes, Alazne Lafragua Ureta, Arkaitz San Jose Martinez eta Unai Gotxi Kastrexana EH Bildu alderdiko kideak (4).

Alkate jaunak galdera luzatu du: ados, ez dakit zerbait adierazi nahi ote duzuen.

Unai Gotxi jaunak hartu du hitza: Azalpen modura Iñigo, zaharren egoitzaren garbiketari buruzko 146 zenbakidun Alkatetza Dekretuari dagokionez, aurrez, gobernu batzorde batean, bainugelak garbitzeko zela jakinarazi zitzaigun, oker ez banago.

Alkate jaunak erantzun dio: ez zen garbitzeko, zaharren egoitzara bideratutako asteburuko laguntza gehigarria da.

Unai Gotxi jaunak jarraitu du: bai, Dekretua bai, baina guri zaharren egoitzako bainugelen garbiketari buruzkoa zela esan zitzaigun...

Alkate jaunak: bada, ez, agian gaizki ulertuko zenidaten, edo nik eman nituen azalpenak oker. Ez, hor gertatzen dena da Eguneko Arretarako Landa Zentroa amaitzen zenean bainugela bat itxi egiten zela eta bat baino ez zen irekita geratzen. Horrenbestez, adostu dena da bi bainugelak irekita mantendu behar direla, bai Eguneko Arretarako Landa Zentrokoa denean eta baita zaharren egoitzarena denean, zerbitzua asteleheneretik ostiralera emanez, eta Eguneko Arretarako Landa Zentroari dagokionez lokal osoa garbitu behar da! zaharren egoitza egon arrear, eta nahiz eta ostiral arratsaldez, larunbatez eta igandez izan, zaharren egoitza da eksklusiboki. Beraz, astelehen goizean laguntza gehigarri bat kontratatzen da lokala garbitzeko, modu horretan, Eguneko Arretarako Landa Zentroak jarduera hastean baldintza onetan geratzen da, izan ere, ostiralez, larunbatez eta igandez zaharren egoitza erabili da.

Unai Gotxi jaunak galdetu du: Orduan, bainugelen garbiketa ez da kontratatu?

Alkate jaunak erantzun dio: Ez, astelehenerako laguntza gehigarri bat kontratatu da, lokal osorako.

Unai Gotxi jaunak adierazi du: Ados.

Alkate jaunak ea beste ezer dagoen galdetu du. Hurrengo puntura igaroko naiz.

5. Udal kudeaketaren kontrola

- Joseba Vivanco jaunak hartu du hitza: Ez dakit gaia planteatzeko asmorik ote zenuen, baina Diputatuekin eta Gordexolako Alkatearekin errepidearen eta areken inguruan egindako bilkurari buruz galdetu nahi dut eta, batez ere, Bizkaiko Foru Aldundiak hartu duen



konpromisoa zein den jakin nahi dut eta baita Gordexolako Alkateak zein jokabide, jarrera, duen. Izan ere, kasu honetan, argi dugu arazo honetan, nolabait esateko, errugabe bakarrak Artziniegako herritarrak garela. Argi baitugu lehenik eta behin arazoa Bizkaiko Foru Aldundiak sortu duela, eta Gordexolako Udalak eman zaizkion eskumenen barnean egokitzat jo duen modura jardun du. Horrenbestez, uste dugu kasu honetan auzia Bizkaiko Foru Aldundiaren eskuetan dagoela batez ere, eta Gordexolako Udalak duen jarreraren baitan ere bai.

Alkate jaunak erantzun dio: Arabako Foru Aldundiarekin egindako bilkuran planteamendu bat eraman genuen, eta bi Foru Aldundien arteko baterako lan tekniko baten aurrean gaude. Gobernuari ere ukitzen dio auziak, eta bi Udalek ere parte hartu behar dute, izan ere, Udal modura proposamenak finkatzeko gaitasun teknikorik agian ez badugu ere, Artziniega eta Gordexola udalerriak gara kaltetu nagusiak. Horri dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak ez zion uko egin, ez zuen gaizki ikusi eta adierazi zuenez, lehen zirriborroa, lehen ikerketa, haiek egingo zuten. Horrenbestez, behin lehen ikerketa hori eskuetan izan ondotik, hortik aurrera balioetsi eta txosten tekniko horretatik irten daitezkeen balizko neurriak aztertu beharko dira. Jakina, neurriak adosten saiatuko gara, Gordexolak ibilgailuek abiadura handiegian ez ibiltzea bermatzeko neurriak izaten jarrai dezan. Baina ez dadila hori Artziniegako herritarren osasunaren kontura izan, errepide hori erabiltzen duten pertsonen kontura izan, beren ibilgailuetan kalteak izatearen kontura izan, haiek baitira errepidea gehien erabiltzen dutenak, eta jakina gaixorik dauden pertsonak garraiatzean areka horiek eragiten duten arriskua handia da, anbulantziekin egindako garraioetan, besteak beste. Gordexolako Alkateak adierazi duenez, udalerrian arazoak izan dituzte abiadurarekin, arekak ipini dituzte eta Eusko Jaurlaritzak irailean eman zituen zenbakiak aintzat hartuta, abiadura murriztu egin dela iruditu zaie. Baina egia da bera izan zela bando bat plazaratu behar izan zuena adierazteko artean abiadura handiak hautematen zirenez, Ertzaintzari radar bat ipintzeko edo errepidean radar mugikorren presentzia areagotu zedila eskatu ziona. Beraz, oraintxe bertan titulartasuna Gordexolak du eta ikusiko dugu azterketa tekniko horrek zer-nolako ondorioak uzten dituen. Berez, Gordexolako Udalak du titulartasuna eta, horrenbestez, Gordexolako Udalari dagokio neurriak hartzea. Horrela dago egoera. Gero, ikusiko dugu noraino hel daitezkeen kontua edo zein diren ondorioak, zer-nolako kostua izan dezakeen eta Bizkaiko Foru Aldundia zenbateraino inplikaturiko den gai honetan.

Joseba Vivanco jaunak adierazi du: txostena iristeko falta diren hiruzpalau hilabeteetan zain egongo gara eta, denbora hori igarota, ikusiko dugu zein proposamen egiten dituzten eta, proposamen horiekin ados gauden, edo Gordexolako Udala ados dagoen, eta...

Alkate jaunak jarraitu du: Mateok egindako txostena ere aintzat hartu behar da, izan ere, badira alternatibak, garraioaren inguruko azterketa bat burutu du, eta alternatiba horiek Eusko Jaurlaritzaren jardunaldi batean agerrarazi dira dagoeneko. Bada, badira hainbat gauza, esate baterako, galtzadan estuguneak, berlindar kuxinak, pintaketa gehiago, seinaleztapen bertikalaren hobekuntza, bihurtune artifizialak edo zebra-bideen erdian dauden oinezkoen babesguneak. Haatik, Gordexolak Alkateak aitortu zuenez, gainerako pasabide batzuetan areka batzuk altuegiak dira eta altuera hori beharrezko aukerak aztertzen ari dira.

Joseba Vivanco jaunak adierazi du: bada, nik ere uste dut ez dela berdina, azken batean, irtenbide batzuk aplikatzean irtenbide horietan izan daitezkeen atzerapenak beren konplexutasun edo prezioaren baitakoak dira. Baina, ez da berdina Iratzagorriko tartea edo plazari edo dena delakoari dagokion herriguneko tartea.

Alkate jaunak erantzun dio: Ez, ez du zerikusirik.

Joseba Vivanco jaunak jarraitu du: ez du zerikusirik ez, hau da, txostenaren zain egongo gara eta ikusiko dugu bertan azaltzen diren proposamenekin ados gauden ala ez.

- Joseba Vivanco jaunak beste kontu bat planteatu du: aurrez jorratutako gai bati buruz galdetu nahi dut, uste dut iazko azken batzordean izan zela, Alkatetza honek, gobernu-taldeak, abiarazteko asmoa duen jakin nahi dut. EH BILDU alderditik ez-betetzeen ondorioz legean aurreikusten diren isunak aplikatzen hasteko gaia proposatu genuen,

- obra-lizentziak eskatzean egindako ez-betetzeen ondorioz edo esleitutako obra-lizentziekin lotuta egindako ez-betetzeen ondorioz. Guk neurriak hartzea eta isunak ipintzea



proposatu genuen, izan ere, gure ustez obra-lizentzia horiek eskatu eta betetzen dituen jendearekiko diskriminazio bat ematen da. Urtea hasi da, eta isun horiek aplikatzen hasteko asmorik badagoen jakin nahi dugu, ez zehapen-politika hau aplikatzeko, baizik eta legean aurreikusten dena aplikatzeko.

Alkate jaunak erantzun dio: bai, agian martxan jarri beharko genukeela aipatu genuen, ez soilik isunak ipintzea, baizik eta, aldi berean, lizentziak izapidetzeko orduan hobekuntzak egitearekin lotzea. Horrela, epeak laburtzen saiatu eta, ondoren, beste udalerrri batzuetan egiten ari dena behatu, esate baterako, Bilboko Udalak egiten duena unean esleitzen den obra txikiko lizentzien instalazioari dagokionez, baina atarietan kartelak jarriz. Bai, gaia aztertu nahi dugu, baina oraindik ez diogu heldu.

Joseba Vivanco jauna: gehienbat, batzordean adierazi zenuelako auzotarren komunitatean obra bat non egingo den adierazteko informazio-paperak ipintzearen kontua, jendeak jakin dezan auzotar jakin bat obra egiten ari den ala ez, zaratak entzun eta ez dezan esan " eta hau, zer egiten ariko da". Zehapena jartzea, azken finean, irizpide kontua dela uste dugu, hau da, ez dugu uste gauza bat bestearekin lotuta egon behar denik, ez dugu uste neurri horiek hartzeko gehiegi pentsatu edo hausnartu, edo atzeratu behar denik. Azken batean kontua konpromisoa hartzea da, aplikatu nahi izatea, hau aplikatu behar dugu esatekoa. Aldez aurretik jendeari jakinarazi behar bazaio "hemendik aurrera Artziniegako Udalak isunak jarriko ditu hau egiteagatik", bada aurretik jakinaraziko da, baina jarduteko unea dela uste dugu, ez ditugu bost, sei, lau edo zortzi hilabete igarotzen utzi behar deus egin gabe.

- Joseba Vivanco jaunak azken gai bat ekarri du: gauza bat azpimarratu nahiko nuke, esan digutenez, Gabon hauetan Gabonetako programen inguruko jardueren berri emateko kartelak soilik gaztelaniaz atera dira, edo euskaraz bi hitz baino ez ziren agertzen, ordua eta data baino ez. Horrenbestez, hori maiz gertatzen denez, aurretik ere ohartarazi baitugu, laguntzaren bat ematen denean, edo elkarte bati oniritzia ematen zaionean edozein gairen inguruan, gogorarazi nahi dugu kartelak jarri behar badira elebidunak izan behar direla, izan ere, aurretik ere aipatu dugu gai hori eta, hala ere, berriro gertatzen da, behin eta berriz.

Inmaculada Vivanco andreak aipatu du: nire ustez, gaztelaniaz atera ahal izan den kartel bakarra...

Joseba Vivanco jaunak ñabartu du: bi egon dira, bi edo hiru esango nuke...

Inmaculada Vivanco andreak jarraitu du: Encinako lagunen elkartearena, kontzertua, eta ez dakit beste zer gehiago, gainerakoak ustez...

Joseba Vivanco jauna: baina horietako batzuetan ordua eta data baino ez zen euskaraz agertzen eta jardueraren azalpena gaztelaniaz soilik, esan digutenez. Beraz, behin eta berriz errepikatzen den kontua da eta uste dut ez dela zailegia, azken batean, jendeari gogorarazi egi behar zaio besterik ez, eta haiek ezin badute, karteletako edukia Udalera igor dezatela eta han itzulpena egingo diete lasai asko.

Inmaculada Vivanco andrea: nik, oraintxe bertan, uste dut soilik bi horiek zirela, gainerakoak elebidunak ziren oker ez banago.

Alkate jaunak galdetu du: Besterik? Bada, orduan...

Inmaculada Vivanco andrea: itxaron, 2015eko prentsa-dossierra helaraziko dizuet. Beno, paperetan irten garenari dagokio. Urtariletik abendura.

Joseba Vivanco jaunak galdetu dio: Onerako edo txarrerako?

Inmaculada Vivanco andrea: bietarako.

Alkate jauna: eskerrik asko Inma, zer-nolako lana.

Inmaculada Vivanco andrea: gorde dezazuen, artxiba dezazuen.

- Joseba Vivanco jauna: Bide batez, gauza bat nuen apuntatuta, izan ere, etorri aurretik begiratu dut, web-orrialdea sarbiderik gabe egon da egun batzuetan?

Alkate jauna: Web-orrialdea?

Joseba Vivanco jauna: web-orrialdeak ez du funtzionatu hainbat egunez.

Maria Llorente andereñoa: Funtzionatu zuela esan behar dut, IOS sistemako Safarirekin ez dut sartzea lortzen, eta Google bidez bai.



Izan ere, duela zenbait egun norbaitek esan zigun "ez du funtzionatzen", gaur berriro esan digute "ez du funtzionatzen", eta etorri aurretik sartu naiz eta funtzionatzen zuen.

Maria Llorente andereñoa: galde iezaiozu ea IOS sistema eragilea duen, nik ezin baitut sartu.

Unai Gotxi jauna: ni atzo Google bidez sartzen saiatu nintzen, eta sartu nintzen.

Maria Llorente andereñoa: baina zure mugikorretik.

Unai Gotxi jauna: bai.

Maria Llorente andereñoa: Apple.

Unai Gotxi jauna: Google bidez, ez...

Maria Llorente andereñoa: bai, baina esan nahi dudana da IOS sistema eragilea deskargatuta baduzu ez duela funtzionatzen, ez dakit zergatik. Nire amak Android du eta egun berean proba egin eta sartu ahal izan nuen.

Joseba Vivanco jauna: ni etxetik sartu naiz etorri aurretik sar zitekeen ikusteko, eta funtzionatzen du.

Maria Llorente andereñoa: Bada, Iphone bat baduzu litekeena da ez funtzionatzea, ez dakit zergatik.

Alkate jauna: adi, gauza bat gertatzen da hemen, eguneratzen denean ezinezkoa da, ez dago erabilgarri.

Maria Llorente andereñoa: Niri duela denboratxo bat gertatzen zait...

Joseba Vivanco jauna: ez baino egun asko daramatza, itxuraz, egun asko daramatza.

Maria Llorente andereñoa: Nire mugikorrarekin egin nuen proba eta, aldi berean, amaren mugikorrarekin egin nuen, eta sartzea lortu nuen.

Joseba Vivanco jauna: ikusi dugu aurrez Udalbatzetako aktetan sartu dela legealdi honetako azken hilabeteetan.

Alkate jauna: eta arau subsidiarioak ere bai.

Joseba Vivanco jauna: eta hori, arau subsidiarioen gaia ez dakit zergatik jasotzen zen, horrek ere arreta eman dit, ez dakit helburu jakin bat zegoen edo informaziorako besterik ez zen.

Alkate jauna: kontua da webgunean izan behar ditugula baita, eta argitaratuta zeuden Foru Aldundiaren orrialdean. Ez dugu aparteko ezer egin, Foru Aldundian Artziniegako arau subsidiarioak agertzen diren gunera jotzeko esteka bat egin dugu. Bertan daude plano guztiak eta testu guztia. Uste dut, agian, jende asko egongo dela horren berri ez zuena. Izan ere, guk argitaratu egin behar ditugu derrigorrez eta, begira, Foru Aldundiak lan hori egiten badigu hainbat hobe, esteka egin eta kito.

Eta jorrazteko gai gehiago ez dagoenez, Saioa amaitutzat eman da aipatu eguneko arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bost minutu izanik. Eta horren guztiorren gainean, fede ematen dut.